

“Lankide andiena izan dodan *Mari Karmen Aberasturi ta Uribarri* neure Ama maiteari. Bai lau liburu onen orrialdeetan ta bai Iztegiarenetan bi mila bidar gitxienez, gai bata ta bestearen ondoan, iru izkiratxo onek irakurri dagikez: B-mu. Bizkaia-Mundaka darakuse. Zortzi-amar bat gai ez, beste mila ta bederatzireun ta larogei ta amarrak, ama, berorren ezpanetatik neure belarrietara yatsiak dira” (2).

Garibay eta Azkuek halako ama bat izan ez balute, hartu zuten bidea hartzeko eta burutu zuten lana burutzeko behar-bada ez ziren gai izango. Eta zenbat horrelako edo antzeko, gizon handi-ospetsuen kondairan! Ikuste motx-laburrekoak izango ginake, bada, emakumearen lana eta eragina izen sonatu batzuetarik bakarrik neurtuko bagenu.

Emakumearen lana apartekoa da, berak bakarrik egin lezakeena. Eta berak bere zereginari uko egingo balio, utziko lukeen hutsarte ezin hornituzkoa gertatuko litzateke.

Domingo Agirre, Garoa eta Kresala-ren egileak, badu lantxo bat emakume euskaltzaleari eskeinia. Hain zuzen ere, Bizenta Mogel-en liburuaren bigarren ediziorako egina. Hango hitzekin bukatzen dut neure hitzalditxoa:

“Asi, Euskalerriko alabak; ekin lanean, saiatu euskeraren alde, lagundu guri” (3).

(2) RESURRECCION M.<sup>a</sup> DE AZKUE, *Euskalerrriaren Yakintza*, Lenengo liburua, 5. orrialdean; Madrid, 1935.

(3) DOMINGO AGIRRE, “Emakumea gizaldiko lorea omen da”. Ikus BIZENTA MOGEL, *Ipui Onak*, Auspoa Liburutegia 28, 25-31 orrialdeak.

## GAZTEA NINTZANEAN TA MAISTRA EGIÑ-BERRIA NINTZANEKO OROIMEN MAITEGARRI BATZUEK. BETI NERE BIOTZEAN DITUDANAK

*Julene Azpeitia*

Emeretzi urte nituan, eta Aizarnabal-en nengoan irakasle, Valladolid'en oposizioak egiteko, 21 urte bete artean.

Amabost urtedun nintzalarik, sartu nintzan Gipuzkoa'ko Normal Ikastetxean, Donostian. Ango ikastaroak amaituta

Bilbao'n, Bizkaiko Normal Ikastetxean, eta an karrera bukatuta, esan detan bezela, 21 urte arteraiño, Aizarnazabal'en egoteko asmoetan.

Baiña, denbora gutxian egon nintzan Aizarnazabal'en. Apendizitis gaizto batek arrapatu ninduan, eta oso gaizki egon nintzan, zerura zuzen-zuzen juateko asmoetan.

D. Pedro Díaz Carredano, Zestua'ko sendagille jaunak sendatu ninduan, Jaungoikoa'k ala nai izanda. Baiña ni, maletak ondo ipiñita nengoan beste mundura juateko.

Sendatu nintzanean, ez nuan geiago Aizarnazabal'era jua nai izan. Orrelako erritxoetan gaxotzen diranak galduak dau delako. Sendagillea urruti, sendagaiak urrutiago, eta sendakintza jakinduriak eskatzen dituan gauzak egiteko gairik ez, eta lekurik ere ez, eta mundu onetako itxaropen danak galdu ta, etsita, beste mundura begira, Jaungoikoaren esku argisuetan, gorputza eta gooa utzita.

Gure Jauna izan ordea, sendagai danak baiño ohea.

Aizarnazabal'en nengoalarik astelenetan juaten nintzan Zumaya'tik eskolara, astelen goizean, oñez, (ez zegoan beste erarik) eta larunbat arratsaldean, eskolatik ertenda beriala, Aizarnazabaletik Zumaya'ra okiñaren zaldigurdian, (en el carro del panadero) erderaz, ondo pozik, ala ere, etxeakoak ikusteko, eta ama laztantzeko.

Esan bear det emen, erri orretan irabazitakoa izan zala, nik, nere amari lenengoz eraman nion dirua (27,50 pezeta), illeko irabaziari, ostatuko kontua kendu ta gelditu zana.

Arratsalde artan okiñaren zaldigurdia nekez zebillela iruditzen zitzaidan, etzala sekula elduko Zumaya'ra. Baita ere nere irudimen sukartsuak ekarri zidan burura oldozpen au: Eta nere ama ill ba'litz? Nik eziñ, neuk beretzat irabazitako dirurik eman.

Zorionez, beste larunbatetan bezela eldu nintzan etxera, eta pozez beterik, eman nizkion amari lenengoz irabazitako diruak, 27,50 pezeta. Eta amari esan nion: "Geiago ere irabaziko ditut, eta danak, zuretzako izango dira, ama".

—oOo—

Aizarnazabal'go eskolan nengoalarik, jazo zitzaidan oraiñ esango detan gertakizun au:

Larunbat artan ez zan okiñik etorri eta, arratsalde luzea bait zan!! pentsatu nuan oiñez etxera juatea, mendiz-mendi, Ibaiña-Berrietatik zear. Eta baita juan ere.

Ibaiña-Berrietara arte, aldapaz gora, aldapaz gora juan bear da, eta Ibaiña-berrietara eldu nintzanean, lenengo zegoan baserriaren aurrean, andre zaar bat egoan, neure zai balego bezela. Ta ni urreratu nintzanean, esan zuan:

— Ara, bai nekian nik (biotzak esaten zidalako) Aizarnazabal'eko maistra gaztea, oñez juango zala gaur Zumaya'ra eta geure etxe aurretik igaroko zala. Eta berak irakurriko zidala gure Joxe-Mariren eskutitza, gaur goizean etorri dana.

Eta nik erantzun nion:

— Bai, emakume, bai orixe, pozik irakurri eta azalduko dizkitzut, esaten dituan gauza guztiak.

Eta asi giñan izketan:

— Nun dago bada soldau zure illoba?

— Ara, oso erri izen tristedun batean. Madrill baiño ere aruntzago. Calavera de la Reina izena duan lekuan.

Bereala pentsatu nuan "Calavera de la Reina" ori zer izan zezakean, Toledo'ko probintzian dagon erri aundi xamar bat, portzelana baiño merkeago dan gai betekin platerak, katilluak, pitxarrak eta abar egiten dituzten erria. "Talavera de la Reina". Ontzi auek sal-erosketa aundi xamarra sortzen dute erri artarako.

Azalpen auek danak eman nizkion, eta "Talavera de la Reina" zala erriaren izena, eta ez "Calavera de la Reina" eurak uste zuten bezela.

— Ara or bada. Guk uste genduan gerrateren batean, Karlisten azkenengo gerratean edo, or nonbait, Erregiñaren bat ilko zutela eta gero aren buruko ezurak lurperatu, eta orrela ipiñia izango zala izen ori. Lenengotan gure Joxe Marik eskutitza egiñ zigunean, uste izan gendun, parre eragitearren esaten zigula erriaren izen bakan ori. Baina gero siñistu gendun. Ba dira sei illabete an dagoala eta guk "Calavera de la Reina"ra bialdutako eskutitzak artzen ditu beintzat. Jaungoikoak ekarri zaitu gaur gure etxe aurretik.

Esan nion Amandreari, erantzuna egingo niola "istanpe-tian" illobaren eskutitzari, eta biaramonean (igandea) naiz

Zestua'ra, naiz Zumaya'ra mezatarra zijoazenean bota zezate-la, korrioan. Eta esan bezela egiñ nuan Joxe-Mari'rentzat erantzuna.

Amandriak atera zizkidan paper, luma, tintaontzi ta legortzaille papera (orduana eskutitz bat egiteko oraingo aldian gauza asko bear izaten ziran da).

—oOo—

Nik eraman aal nezakean baiño sagar pillo aundiagoa eman nai zidan Amandreak, etxera eramateko. Bidean jateko bi bakarrik artu nizkion, eta agur maitekorrak esanda, asi nintzan aldapaz bera sagar gordiña janaz.

Etxera eldu nintzanean nai aiña parre eragiñ nioten ama-ri ta aizpari "Calavera de la Reina" izenarekin.

Aita ez zan etxean, Cadiz'en baizik. Etxean egon baldiñ ba'zan, bertsuak aterako zizkion "Calavera de la Reina" erriari, gure aita zerbait bertsolaria zan da.

—oOo—

Urrengo goizean, igande goiza, zortzirak baiño len etorri zan gurera Ibaiña-Berrietako andre gaztea, otarra bete sagar ekartzera, eta poz aundiz esan zion nere amari: "Ibaiña-Berrietatik Zumaya'ko kalera nola etorri naizan, esaten dezu, karga onekin? Pozik etorri naiz ni; Sagar auek balio dutena baiño mesede aundiagoa egiñ zigun Maistrak atzo, gure Joxe Mari'ren eskutitza irakurrita. Ba zan gurean poza ta parrea soldaduen berriak amandreak esan zizkigunean".

Gure amak, katillukada galanta bete kafe-esne ederra eman zion, eguneko ogi bero frantsesakiñ (gozaritan ogi fran-tsesa erabilten genduan gure etxean), eta onela zion Ibaiña-Berrietako andre gazteak: "Len baiño oraiñ obeto nago Ibaiña-Berrieta'runtz aldapaz gora ekiteko".

Egun ura guttiz egun ona izan zan neretzat. Maistren karrera egindako damurik ez nuan orduantxe!! Ez orixe!! Egia esan, iñoiz ez det karrera au egindako damurik izan, eta bai poz aundiak, biotza bete-beteko pozak sarri askotan. Eta egun au izan zan bat.

Esan bear det baita ere, neri iñoiz galdetu didatenean: Aizu, berriz jaioko baziñake zer karrera artuko zenduke? Nik beti erantzun det: Maistren karrera. Milla bider jaioko ba'nintzake ere.

*Madaleine Jauregiberri*

Orain direla egun ta berrogeta hamar bat urthe, Lucien Bonaparte printzia jin zen Baiunara. Europako beste mintzai-re haborosiak ixtudiatu zutian, euskara ere nahi zian ikhasi. Erran zeyen, 7 mintzakietan, xiberotarra zela hobekienik kontserbaturik zena, bena zinez estonatu zen, jakin zialarik, zertzaz bibliotekarik libururik ere etzela debozinezko ele batez kanpo.

Aholkatu zien, juan ledin inchauspe kalunjiaren ikhustera, xiberotarra zela eta gizon zinez sabant jakintsia.

Harek ere, erran zeyon, etzela orako ziberotarra izkiribualat igaran. Bena nola konserbi eta begiratu duzie galdegin zeyon Inchausperi eta hunek arrapostu:

Goguan konserbi eta elhestaz begiratu. Bi sabantek deliberatu zien xiberotar aditzaren izkiribuz ezartia, batak ba zian jakitatia bere goguan, bestiak aldiz, ezagutzen mintzai-aren technique delakua. Lanak ukhen zutien xiberotar aditzaren sar-arazteko beste mintzaiaren aditzen kadretan, eta borts ehun bat paia bethe zutien tink-tink eta orano erraiten zian Inchauspek etzutiala untsa ikhertu bere gogoko sokhuak oro.

Lan izigarri hori erori zeyon eskietara ene anaie bati. Etzen sekulan euskarari interesatu, matematikak maite zutian gizon bat zen.

Ostokatu zian eta salhe estonaturik baratu, lehentze izkiribaturik ikhusten zutian hitzak enthelegatzen zutian ahoz erraiten bazutian. Irakurri zian aitzin solasian ere Inchauspek erraiten ziala euskarak jerraikitzen zutiala mintzairiaren lege naturalak, bega lege huak etzutian aiphatzen baizik. Problemen artian kostumaturik eta laket beitzen üdüritu zeyon ba zela hor bat argitzeko eta ediren zian elkhi-bide bat zuiñi eman beitzon izena: mecanisme de la conjugacion du verbe